

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

4598

48/2021 EBAZPENA, uztailaren 26koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearekin izenpetutako hezkuntza-lankidetzarako esparru-hitzarmena, helburu hau duena: kanpoko praktika akademikoak egitea eta gradu amaierako eta/edo master amaierako lanak garatzea eta/edo zuzentzea.

2021eko ekainaren 1ean egindako bilkuran Gobernu Kontseiluak onartu duen Erabakiaren bidez, baimendu egiten da aipatutako hezkuntza-lankidetzarako esparru-hitzarmena izenpetzea, eta, beharrezko publikotasuna emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearekin izenpetutako hezkuntza-lankidetzarako esparru-hitzarmenaren testua, ebazpen honen eranskinean dago jasota dagoena. Hitzarmenak helburu dauka kanpoko praktika akademikoak egitea eta gradu amaierako eta/edo master amaierako lanak garatzea eta/edo zuzentzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 26a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN UZTAILAREN 26KO 48/2021 EBAZPENARENA



NAZIOARTEKO
BIKANTASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



HEZKUNTZA-LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARTEKOA, KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGITEKO ETA GRADU AMAIERAKO ETA/EDO MASTER AMAIERAKO LANAK GARATZEKO ETA/EDO ZUZENTZEKO.

Leioan, sinadura elektronikoaren egunean

BILDURIK

Alde batetik, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU, aurrerantzean) ordezkari modura, Laura Vozmediano Sanz andrea, esparru-hitzarmen hau sinatzeko eskumena duen organoaren (Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Arloko Errektoreordetza) izenean eta hura ordezkatzuz (Helbidea: Sarriena Barrio z / g, Leioa, Bizkaia, 48940, Bizkaia; IFK zenbakia: Q4818001B), errektorearen eskumenak eskuordetzeari eta bere gobernu-taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteari buruzko UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Ebazpenak aitortzen dizkion eskudantzien arabera.

Bestetik, José Luis Quintas Diez jauna, Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburuordea, urtarrilaren 12ko 4/2021 Dekretuz egindako izendapenaren ondorioz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Osasun Sailaren (Osasun Saila edo erakunde laguntzailea, aurrerantzean) izenean eta ordezkartzez (IFK zenbakia: S483301C, eta jakinarazpenetarako helbidea: Donostia Kalea, 1-01007, Vitoria-Gasteiz, Araba), Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuak ematen dizkion eskudantzien arabera.

Esparru-hitzarmen hau sinatzeko lege-gaitasuna aitortzen diote elkarri alde biek.

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA.- UPV/EHU zuzenbide publikoko erakunde bat da, irakaskuntzan, ikerketan eta garapen zientifiko-teknologikoan diharduena, sektore anitzekoa eta diziplina anitzekoa, eta haren helburuen artean dago "Kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen heziketa osoa bultzatzea, eta lanean hasteko beharrezkoa den prestakuntza ziurtatzea". (UPV/EHUren Estatutuen 4.1.c artikulua).

BIGARRENA.- Jakitun egonik ikasleen lanbideratzea prestatzeko enpresa-praktikek duten garrantziaz; Ebazpena, 2019ko uztailaren 24koa, Graduak eta Graduondoko Ikasketetako eta Ikasleen eta Enplegarritasunaren Arloko errektoreordeena, zeinen bidez UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegia onartzen baita (Gobernu Kontseiluak 2019ko uztailaren 12an onartua); EBAZPENA, 2015eko martxoaren 26koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Gradu Ikasketa eta Berrikuntzaren Arloko errektoreordearena, UPV/EHUko gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia argitaratzen duena (2015eko martxoaren 12ko Gobernu Kontseiluan onartua); EBAZPENA, 2019ko ekainaren 12koa, UPV/EHUko Graduak eta Graduondoko Ikasketen Arloko errektoreordearena, UPV/EHUko master amaierako lana egin

Pág. 1

Este documento es una representación del original disponible a través del localizador y la sede electrónica indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-orriean adierazitako lokalizatzailearen eta egoitza elektronikoaren bidez eskuragarri dagoena.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T2YAB-3YHW

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: JOSE LUIS QUINTAS DIEZ | 2021/06/22 15:25:15

SINATZAILE / FIRMANTE: LAURA VOZMEDIANO SANZ | 2021/07/16 09:59:18



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



eta defendatzeari buruzko arautegia argitaratzen duena (2019ko maiatzaren 30eko Gobernu Kontseiluan onartua); eta urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duenak, unibertsitateek beren ikasleen prestakuntzarako enpresekin eta erakundeekin hezkuntza-lankidetzako programak ezartzeko aukera aurreikusten du, eta ikasketa-planaren bigarren zatian programatzea gomendatzen du, ikasleek ikasketen lehen urteetan eskuratutako gaitasunen aplikazioa hobetzeko eta haien laneratzea errazteko.

HIRUGARRENA.- 1393/2007 Errege Dekretutik aurrera nahitaezkoa da gradu amaierako lana eta master amaierako lana aurkeztea titulua lortzeko. Ikasketa-planaren azken fasean egin behar dira lan horiek eta haien xedea da tituluaren gaitasunak ebaluatzea.

UPV/EHUK bere garaian erabaki zuen GRALak eta MALak enpresa mundura hurbiltzea, eta aukera eman zien ikasleei lan horiek UPV/EHU ez beste erakunde batzuetan garatzeko, eta unibertsitatetik kanpoko pertsonai, betekizun batzuk betez gero, lan horiek zuzentzeko.

LAUGARRENA.- Bi aldeek, jakitun unibertsitate-ikasleak lanbideratzearen berezitasunaz, lankidetzarako esparru-hitzarmen hau sinatu nahi dute, helburua izanik UPV/EHUKo Gradu eta Master ikasleen prestakuntza eta gaitasunak integratzea, kanpoko praktika akademikoaren bidez edo gradu edota master amaierako lanak garatuz edo zuzenduz.

Hori guztia kontuan harturik, bi aldeek:

HITZARTU DUTE:

BAKARRA. -Esparru-hitzarmen hau sinatzea praktikak egiteko unean indarrean dagoen legediaren arabera. Aplikagarriak diren artean, honen ondoren zerrendatzen diren xedapenetan aurreikusitakoa aintzat hartuko dute, bereziki, praktika-prestakuntzek. EBAZPENA, 2019ko uztailaren 24koa, Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordearena eta Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordearena, UPV/EHUKo Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegia onartzen duena; EBAZPENA, 2015eko martxoaren 26koa, EHUKo Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordearena, UPV/EHUn gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia argitaratzen duena (2015eko martxoaren 12ko Gobernu Kontseiluan onartua); EBAZPENA, 2019ko ekainaren 12koa, UPV/EHUKo Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordearena, UPV/EHUn master amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia argitaratzen duena (2019ko maiatzaren 30eko Gobernu Kontseiluan onartua); 1393/2007 Errege Dekretua, urriaren 29koa, unibertsitate-ikasketa ofizialak arautzen dituenak; eta 592/2014 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, unibertsitate-ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituenak; baita UPV/EHUn beste barne-araudi bat ere. Klausula hauek izango ditu:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- XEDEA

Esparru-hitzarmen honen xedea da lankidetzara programa bat adostea UPV/EHUn eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren artean, UPV/EHUKo ikasleek kanpoko praktika akademikoak egiteko eta, hala badagokio, titulua lortzeko ikasketetako gradu guztien amaierako lanak (GRAL, aurrerantzean) edo masterra lortzeko graduondoko ikasketetako master guztien amaierako lanak (MAL, aurrerantzean) zuzentzeko. Osasun Sailaren egitura organikoa



eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 DEKRETUAN zehaztutako funtzioetara eta jardun-arloetara mugatzen da bere eragin-eremua.

BIGARRENA.- KONPROMISO AKADEMIKOAK ETA ADMINISTRATIBOAK

1. 1. GRAL/MAL

GRALak edo MALak egiten edo zuzentzen hasi aurretik, aldeek sinatuko dute esparru-hitzarmen honen GRAL eranskina edo MAL eranskina. Datu hauek emango dira gutxienez:

- Ikaslea egiten ari den gradu edo master programa.
- GRALa edo MALa erakunde laguntzailean zer ikasturtetan hasi den.
- Ikaslearen datuak.
- GRALa edo MALa erakunde laguntzailearen zer laborategitan edo ikerketa-unitatetan garatuko den.
- GRALak edo MALak erakunde laguntzailean duen zuzendaria edo zuzendarikidea, hala badagokio.
- GRALak edo MALak UPV/EHU duen zuzendaria edo zuzendarikidea, hala badagokio.
- GRALaren edo MALaren egutegi- eta ordutegi-proposamena.
- Konfidentzialtasun baldintzak.
- Jabetza intelektualaren eta jabetza industrialaren baldintzak.
- Ikaslearen adostasuna.

2. 2. KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK

Kanpoko praktika akademikoak egiten hasi aurretik, aldeek sinatuko dituzte esparru-hitzarmen honi erantsi zaizkion UPV/EHUren Kanpoko Praktika Akademikoen Araudiaren II. eranskina (curriculum praktikak) eta IV. eranskina (curriculumez kanpoko praktikak).

Ikastegiak eta erakunde laguntzaileak adostuko dituzte praktiken iraupena eta ordutegiak, kontuan izanik haien ezaugarriak eta erakundearen ahalmena, praktikak ahalik eta eraginik txikiena izan dezan erakunde laguntzailearen ohiko jardunean.

Dagokion ikasketa-planean oinarrituta, tutore arduradunak prestakuntza-proiektu bat egingo du praktikak hasi aurretik.

Proiektu horrek atal hauek izango ditu gutxienez:

- Ikaslearen datuak.
- Erakundearen datuak.
- Tituluaren datuak.
- Erakunde laguntzaileko instruktoarea.
- Tutore akademikoa.
- Praktiken programaren arduraduna.
- Praktikaren iraupena (orduak).
- Oinarritzko gaitasunak, generikoak eta espezifikoak.
- Zehaztutako gaitasunekin lotutako ikaskuntza emaitzak.
- Ikasleak egin beharreko jarduerak eta lanak (praktika egiten ari den erakundean edo unibertsitate-ikastegian).



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



HIRUGARRENA.- UPV/EHuren KONPROMISO ESPEZIFIKOAK

- Espresuki aipatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren lankidetzaz UPV/EHuko ikasleen kanpoko praktika akademikoetan eta, hala bada, GRAL/MALaren garapenean edo zuzendaritzan, baita horiekin zerikusia duten jarduera guztietan ere.
- Informazioa ematea erakunde laguntzaileari gradu eta master ikasketak erregulatzen dituen unibertsitate araudiari buruz.
- Sinatutako dokumentuaren kopia bat ematea erakunde laguntzaileari.
- Esparru-hitzarmen honen berri ematea ikasleari (eragiten dioten atal guztien berri).
- Ikasleak esparru-hitzarmen honek eta dagokion araudiak ezartzen dizkioten betebeharrak bere gain hartzen dituela zaintzea.
- Ikasleak baimena ematea espresuki bere datuak 14. klausulan aipatutako xedeetarako erabiltzeko.
- Indarrean dagoen araudiak aipatutako beste edozein konpromiso.

LAUGARRENA.- EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAREN KONPROMISO ESPEZIFIKOAK

- Ikaslea hartzea bere instalazioetan dagozkion jarduerak egin ditzan: GRAL edo MAL. Eta hala badagokio, lan horiek zuzentzea (zuzendaria edo zuzendarikidea izanik) eta ikaslearen praktiketan instrukzio funtzioa betetzea (instruktorea).
- Erakundeko pertsona bat izendatzea ikaslearen jardueraren arduradun, baita praktiken tutore bat edo GRAL/MAL zuzendari bat ere, hala badagokio.
- Indarrean dagoen gradu- eta master-ikasketen unibertsitate-araudia betetzea, baita ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen ere.
- GRAL/MALA eta garatu beharreko praktikak egokiro garatzeko ikasleek behar duten materiala eta azpiegitura jartzea, eta zenbat ikasle har ditzakeen zehaztea.
- Praktikak egiteko behar duen dokumentazioa ematea ikasleari; bereziki, GRAL/MALari buruzkoa.
- Idatzizko txosten bat egitea GRAL/MALaren defentsaren aurretik, baita praktikei loturiko txostenak ere.
- Indarrean dagoen araudiak aipatutako beste edozein konpromiso.

BOSGARRENA.- PRAKTIKEN INSTRUKTOREA

1. Erakunde laguntzaileak instruktore bat izendatuko du ikasle bakoitzarentzat, eta haren eginkizunak izango dira prestakuntza jarduerak antolatzea, ados jarrita Praktika Programaren arduradunarekin eta ikaslearen tutorearekin, eta praktikaren garapenari buruzko informazioa ematea tutoreari, Prestakuntza Proiektua betetz.
2. Erakunde laguntzailearekin lotura duen norbait izango da instruktorea, eta tutoretza lan egokia egiteko behar diren esperientzia profesionala eta ezagutzak izango ditu.. Instruktorea eta unibertsitatearen tutoretza lana egingo duena ez dira pertsona bera izango
3. Praktika Programaren arduradunaren onspena beharko du instruktoreak, eta onspen horrek emango dio "venia docendi"-a, zein UPV/EHuko



Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak erregulatzeke Araudian ezarritako prozedura bidez gauzatuko baita.

4. Kontuan hartuta instruktoreari eginkizun batzuk eta eskubide eta betebeharrak batzuk esleitzen zaizkiola esparru-hitzarmenaren xede diren jardueren jarraipenari dagokionez, eta haren lanpostuari dagozkionak baino eginkizun gehiago bete behar dituzten Osasun Saileko funtzionarioak direnez, ezinbestekoa da instrukzio-egileak zeregin horiek aldeztu aurretik eta borondatez onartzea. Gainera, Osasun Sailak kontuan hartuko du eginkizun horiek betetzeak eragina izan dezakeela normalean egiten dituen zereginetan.

SEIGARRENA.- PRAKTIKETAKO INSTRUKTOREAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. Erakunde laguntzaileko instruktoreak eskubide hauek izango ditu:
 - a) Laguntzaile gisa egingo duen lana aitortua izatea, aurreko klausulan ezarritako moduan.
 - b) Kanpoko praktiken araudiari buruzko informazioa jasotzea, baita prestakuntza proiektuari eta garapen baldintzei buruzkoa ere.
 - c) Unibertsitateari jo ahal izatea, bere eginkizunak betetzeko behar dituen informazio eta laguntza eske.
2. Gainera, betebeharrak hauek izango ditu:
 - a) Ikasleari harrera egitea eta egin behar dituen jarduerak antolatzea, prestakuntza-proiektuaren arabera.
 - b) Ikaslearen lana gainbegiratzea eta praktika orientatu eta kontrolatzea, elkar errespetuan eta ikaskuntzarekiko konpromisoan oinarritutako den harreman baten bitartez.
 - c) Erakunde laguntzailearen antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzko informazioa ematea ikasleari; bereziki, laneko arriskuei eta segurtasunari buruzkoa.
 - d) Unibertsitateko tutorearekin koordinatzea prestakuntza-proiektuko jarduerak egiteko; gainera, sor daitezkeen gorabeheren berri ematea eta horiek konpontzea, eta azterketak egiteko baimenak kontrolatzea.
 - e) Ebaluazio-prozesuan parte hartzea (ikastegiak emango dio prozesu horren berri).
 - f) Praktiketarako behar duen prestakuntza osagarria ematea ikasleari.
 - g) Praktiketarako behar dituen baliabide materialak ematea ikasleari.
 - h) Ikasleak akuilatzea berrikuntza, hobekuntza eta ekintzazailtza arloetan proposamenak egin ditzaten.
 - i) Erakundearen ateak zabaltzea UPV/EHUko tutoreari, bere eginkizunak bete ditzan.
 - j) Konfidentziasunez gordetzea instruktore lanetan eskura dezakeen ikasleari buruzko edozein informazio.
 - k) Ikasleari laguntzea erakundean egingo duen egonaldian, bertan betetzen dituen jardueretan sor daitezkeen gorabehera profesionalak konpontzeko.

ZAZPIGARRENA.- GRADU AMAIERAKO LANA EDO MASTER AMAIERAKO LANA EGIN BEHAR DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. Honako hauek dira esparru-hitzarmen honen arabera ikasleen eskubideak eta betebeharrak:
 - a) GRALA edo MALa hastea, adostutako datan eta baldintzetan.
 - b) Erakunde laguntzaileak finkatutako ordutegiak eta arauak betetzea.



- c) GRALa edo MALa arduraz eta probetxuz egitea, GRAL/MALaren jarduera planaren arabera eta onartu diren baldintza espezifikoetan.
 - d) GRAL/MAL zuzendariaren idatzizko txostena jasotzea lana defendatu aurretik.
 - e) GRAL/MALean izandako edozein gorabeheraren berri ematea erakunde laguntzaileko GRAL/MAL zuzendariari (edo, hala badagokio, erakundeak jarduera horietarako izendatutako arduradunari) eta UPV/EHUko zuzendariari edo zuzendarikideari.
 - f) Erabateko sekretu profesional ez eta konfidentzialtasunez gordetzea erakunde laguntzailean eskuratutako informazioak.
 - g) Jabetza intelektual eta industrialeko eskubidea, gai hau arautzen duen legediak ezarritakoaren arabera.
 - h) Esparru-hitzarmen honen klausulek ez dute inolara ere eragingo inori lagatzea edo transmititzea erakunde laguntzailearen jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak.
 - i) Indarrean dagoen araudian aurreikusitako beste edozein eskubide edo betebeharrak.
2. Aurreko apartatuan aipatutako betebeharrak bete ezean, bertan behera utzi ahal izango dira jarduerak. Horretarako, gertatutakoaren berri emango dio UPV/EHUko edo erakunde laguntzaileak esparru-hitzarmen honen bidez sortutako Jarraipen Batzordeari, eta honek hamar egun izango ditu, gehienez, jarduerak hutsaldu ala ez erabakitzeko.

ZORTZIGARRENA.- PRAKTIKETAKO IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

- 1. Ikasleek eskubide hauek izango dituzte kanpoko praktika akademikoak egitean:
 - a) Tutoretzarako eskubidea praktikaren iraupen-aldian, unibertsitateko irakasle baten edo praktika egiten ari den enpresa, instituzio edo erakunde profesional baten eskutik.
 - b) Ebaluatua izateko eskubidea, unibertsitateak ezarritako irizpideen arabera.
 - c) Erakunde laguntzailearen praktikei buruzko txostena jasotzea, bereziki aipatuta egin den lana, haren iraupena eta, hala badagokio, errendimendua, unibertsitateak ezarritako prozeduraren arabera.
 - d) Jabetza intelektual eta industrialeko eskubidea, legediak arlo honetan ezartzen dituen baldintzetan, ikasleak dagokion lagapen edo transmisio dokumentua sinatu duenean izan ezik.
 - e) Informazioa jasotzea erakunde laguntzailearen eskutik laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioaren araudiari buruz.
 - f) Haien jarduerak egitea (akademikoak, prestakuntza arlokoak eta ordezkaritza nahiz partaidetza arlokoak), horien berri emanez garaiz erakunde laguntzaileari.
 - g) Desgaitasunak dituzten ikasleen kasuan, beharrezko baliabideak eskuratzea, tutoretza, informazio eta ebaluazio alorretan, praktikak baldintza berberetan egiteko.
 - h) Desgaitasunak dituzten ikasleen kasuan, praktikak bateragarri egitea desgaitasunetik eratorritako jarduerekin eta egoerekin.
 - i) Indarrean dagoen araudiak eta unibertsitateak erakunde laguntzailearekin hezkuntza-lankidetzarako sinatu dituen esparru-hitzarmenek aurreikusitako beste eskubide guztiak.
- 2. Bestetik, ikasleek betebeharrak hauek izango dituzte kanpoko praktika akademikoak egitean:
 - a) Unibertsitatearen kanpoko praktikei buruzko araudia betetzea.



- b) Praktiken prestakuntza-proiektua ezagutzea eta betetzea, kontuan izanik erakunde laguntzaileak – unibertsitateko tutorearen gainbegiradapean– izendatutako instruktorearen jarraibideak.
 - c) Harremanetan egotea unibertsitateko tutorearekin praktikak egin bitartean eta edozein gorabeheraren berri ematea. Gainera, eskatzen zaizkien dokumentu guztiak entregatzea.
 - d) Lanean hastea erakunde laguntzailean, aurrez adostutako egunean; hezkuntza-proiektuan ezarritako ordutegia betetzea; praktikei dagozkien arropak janzea eta higie arauak betetzea; eta erakundearen funtzionamendu, segurtasun eta lan arriskuen prebentziorako arauak errespetatzea.
 - e) Pertsonen eta instalazioen segurtasuna bermatzeko moduan jokatzeko praktiketan.
 - f) Prestakuntza proiektua garatzea eta arduraz aritzea erakunde laguntzailearekin hitzartutako jardueretan, proiektuan ezarritako lan ildoan arabera.
 - g) Praktikak arautzen dituen UPV/EHUren araudian ezarritako dokumentuak, txostenak eta memoriak egitea eta entregatzea, baldin eta unibertsitateko tutoreak edo erakundeko instruktoreak eskatzen badizkio.
 - h) Konfidentziasunez gordetzea erakunde laguntzailearen barne informazioa eta sekretu profesionalaz jokatzeko, inoren esku ez uzteko praktiketan (praktiken aurretik, praktikak egin bitartean eta ondoren) lortutako datuak eta informazioa.
 - i) Segurtasun-neurriak eta jarraibideak betetzea baliabide informatikoak erabiltzean, informazioa tratatzean eta dokumentuak zaintzean, baita instalazioen segurtasunaren arloan ere.
 - j) Errespetuz jokatzeko beti erakunde laguntzailearen politikarekin, partaide diren unibertsitatearen izen ona zaindiz.
 - k) Indarrean dagoen araudiak eta unibertsitateak erakunde laguntzailearekin hezkuntza-lankidetzarako sinatu dituen esparru-hitzarmenek ezarritako beste betebeharrak guztiak.
3. Aurreko ataleko betebeharrak bete ezean, bertan behera utzi ahal izango dira praktikak. Horretarako, gertatutakoaren berri emango dio UPV/EHUk edo erakunde laguntzaileak esparru-hitzarmen honen bidez sortutako Jarraipen Batzordeari, eta honek hamar egun izango ditu gehienez erabakitzeko praktikak hutsaldu ala ez.
4. Ikasleek aukera izango dute praktiketara ez joateko azterketarik egin behar izanez gero, horren berri emanez instruktoreari hiru egun lehenago. Arrazoi akademiko edo beste arrazoi batzuegatiko gainerako huts egiteak ahalik eta lasterren jakinaraziko zaizkie instruktoreari eta tutoreari, eta honen onespina beharko dute.

BEDERATZIGARRENA.- IKASLEEN ETA EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAREN ARTEKO HARREMANAREN IZAERA

1. Kanpoko praktika akademikoen helburua dela eta (hau da, ikasleen prestakuntza), ez da sortuko inola ere lan-harreman bati dagokion betebeharririk, eta ezin izango dira erabili lanpostu bati dagokion lan-prestazioaren ordezkio gisa.
2. Gainera, ikaslea erakunde laguntzailearen lantaldean sartzen bada ikasketak amaitzean, praktikak edo GRAL/MALA egiteko denbora ez da aintzat hartuko antzintasuna kalkulatzeko orduan, eta ez du probalditik salbuetsiko, esparru-hitzarmen kolektiboak besterik adierazi ezean.



3. Esparru-hitzarmen honek ez du jasotzen erakunde laguntzaileak Gizarte Segurantzari kotizatzeke betebeharrak bere gain hartzen dituenik.
4. Erakunde laguntzaileak ez du inolako diru-kopururik jasoko bere bulegoetan egiten diren jarduera praktikoengatik konpentsatzeko. Zenbateko hori berariaz zehaztu beharko litzateke klausula batean.

HAMARGARRENA.- GRADU AMAIERAKO LANAREN ETA MASTER AMAIERAKO LANAREN ZUZENDARIA

1. GRAL

UPV/EHUko irakasle batek edo erakunde laguntzaileko kide batek zuzenduko ditu erakunde laguntzailean eginiko GRALak. Zehazki:

- GRALa UPV/EHUko irakasle batek zuzentzen duenean, erakunde laguntzaileak izendatuko duen pertsona baten laguntza izango du ikasleak, eta pertsona hori arduratuko da enpresan egingo duen egonaldiaz. Bi pertsona horiek zein diren adieraziko da esparru-hitzarmen honen GRAL eranskinean.
- GRALa erakunde laguntzaileko kide batek zuzentzen duenean, zuzendarikide bat izango du: gradua irakasten duen sail bateko edo gradua ematen duen ikastegiari atxikitako irakasle bat. Bi pertsona horiek zein diren adieraziko da esparru-hitzarmen honen GRAL eranskinean.

Oro har, GRAL zuzendariak edo zuzendarikideek -elkar koordinaturik- eginkizun hauek izango dituzte:

- Lanaren ezaugarriak azaltzea ikasle bakoitzari.
- Lana egiteko aholkuak ematea.
- Helburuak betetzen direla zaintzea.
- Jarraipen-lana egitea, eta ikasleari entregatuko zaion idatzizko txosten bat egitea defentsaren aurretik.

GRALak Jabetza Intelektualari buruzko legearen babesa duenez, lana egin duenari dagokio jabetza intelektualeko eskubideen titulartasuna. Hala eta guztiz ere, ikasleak aukera izango du, egiletza errespetatuz beti, osoki edo partzialki lagatzeko jabetza ukiezin horien ustiapen eskubideak, akordio espezifikoak eginez enpresarekin (esparru-hitzarmen honen GRAL eranskinean zehaztuko dira akordio horiek).

2.- MAL

UPV/EHUko irakasle batek, erakunde laguntzaileko kide batek edo biek batera zuzenduko dituzte erakunde laguntzailean eginiko MALak. Zehazki:

- MALa UPV/EHUko irakasle batek zuzentzen duenean, erakunde laguntzaileak izendatuko duen pertsona baten laguntza izango du ikasleak, eta pertsona hori arduratuko da ikasleak enpresan egingo duen egonaldiaz. Bi pertsona horiek zein diren adieraziko da esparru-hitzarmen honen MAL eranskinean.
- MALa zuzentzen badu erakunde laguntzaileko kide batek, doktorea izango da eta masterraren MALak zuzendu ditzaketen irakasleen zerrendan egongo da.

Doktore titulurik ez badu, UPV/EHUko irakasle doktore batekin batera zuzenduko du MALa (masterraren MALak zuzentzeko gaitasuna izango duena). Master profesionalean izan ezik, non, salbuespen modura, dagokion



NAZIOARTEKO
BIKINTASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



justifikazioa aurkeztuta, Graduondoko Batzordeak MALak zuzentzeko baimena emango dion.

Oro har, MAL zuzendariak edo zuzendarikideek -elkar koordinaturik- eginkizun hauek izango dituzte:

- Lanaren ezaugarriak azaltzea ikasle bakoitzari.
- Lana egiteko aholkuak ematea.
- Helburuak betetzen direla zaintzea.
- Jarraipen-lana egitea eta ikasleari entregatuko zaion idatzizko txosten bat egitea defentsaren aurretik.

MALak Jabetza Intelektualari buruzko legearen babesa duenez, lana egin duenari dagokio jabetza intelektualeko eskubideen titulartasuna. Hala eta guztiz ere, ikasleak aukera izango du, egiletza errespetatuz beti, osoki edo partzialki lagatzeko jabetza ukiezin horien ustiapen eskubideak, akordio espezifikoak eginez enpresarekin (esparru-hitzarmen honen MAL eranskinean zehaztuko dira akordio horiek).

HAMAİKAGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.

Esparru-hitzarmen hau sinatu duten erakundeek Jarraipen Batzorde bat sortuko dute, paritarioa eta lau lagunek osatua: titulazioaren ardura duten ikastegiko bi ordezkariak eta erakunde laguntzaileko beste bik.

Esparru-hitzarmenaren sinatzaileak batzordeburu izango dira txandaka, eta UPV/EHUri egokituko zaio lehen txanda.

Jarraipen Batzordearen zeregina izango da ebaztea gradu edo master amaierako lanak egitean edo praktiketan sor daitezkeen interpretazio arazoak eta gorabeherak.

HAMABIGARRENA.- LAGUNTZEN POLTSA.

Oro har, ikasleek ez dute inongo kopururik jasoko, erakunde laguntzaileen aldetik, kanpoko praktika akademikoak edo GRAL/MALak egiteagatik.

HAMAHIRUGARRENA.- ASEGURUAK

a) UPV/EHUko ikasleen aseguruak

1. UPV/EHUK erantzukizun zibileko aseguru poliza bat du, ikasleek kanpoko praktika akademikoetan edo GRAL/MALak egitean eragindako kalteak estaltzeko.
2. Unibertsitateak eta ikasleek ez dute erantzukizunik izango kalteak sortu badira erakunde laguntzaileak izendatu duen pertsonaren aginduen ondorioz eta agindu horiek ez badaude prestakuntza planean/jarduera planean.



3. Titulu ofizialetan matrikulatutako 28 urtetik beherako ikasleek - espainiar nazionalitatekoak nahiz bizileku-baimena duten europarrak edo atzerritarrak- eskola-asegurua estaldura dute. Gainera, UPV/EHUk 'EHU Ikasle Asegurua' dauka, istripu eta osasun asistentziarako asegurua, UPV/EHUk matrikulatutako ikasle guztiak barne hartzen dituen Espainiako estatuan.
 4. Praktikak eta GRAL/MALak atzerrian egiteko, IBILI poliza kontratatu behar da, edo antzeko estaldura duen beste poliza bat.
 5. Mugikortasun programa baten bidez atzerriko unibertsitateetatik UPV/EHUrak kanpoko praktika akademikoak egitera datozen ikasleek IBILI poliza beharko dute (edo antzeko estaldura duen beste bat), baita erantzukizun zibileko poliza bat ere, praktiketan eragin ditzaketen kalteak estaltzeko.
- b) Prestakuntza-jardueretan lagunduko duten Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko pertsonalaren asegurua

Aipatutako irakaskuntzetako ikasleek egin beharreko prestakuntza-jarduerak garatzen laguntzen duten Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko pertsonala behar bezala aseguratu du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, eginkizun horiek betetzen dituzten bitartean; eta horien bidez unibertsitatearekin lankidetzan arituko da, aipatutako erakundearekin lan-harremana duen erakundea ordezkatzuz.

HAMALAU GARRENA.- UPV/EHUko IKASLEEN DATUAK BABESTEA

Esparru-hitzarmen hau sinatzean, baimena ematen da datu pertsonalak erabiltzeko, soil-soilik esparru-hitzarmenean aipatutako xedeetarako eta aintzat harturik abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko, eta 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio libreari buruzkoa, zeinak indargabetu egiten baitu 95/46/CE Zuzentaraua (datuak babesteko erregelamendu orokorra).

Ezin ezingo da inola ere daturik erabili esparru-hitzarmenean eta haren eranskinetan aipatzen ez diren zereginetarako.

Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei lagako edo jakinaraziko, non eta ez den esparru-hitzarmenean adierazitako eta indarrean dagoen legedian aurreikusitako helburuak artatu, garatu, kontrolatu eta betetzeko.

Datuen titularrek eskubidea izango dute datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko, tratamendua mugatzeko eta aurkaratzeko. Eskubidea izango dute, halaber, soilik beren datuen tratamendu automatizatuan oinarritzen diren erabakien pean ez egoteko. Eskubide horiek gauzatzeko UPV/EHUrak joko dute, datuen babesaren ordezkariarengana (Sarriena auzoa, z/g 48940 Bizkaia edo dpd@ehu.eus helbide elektronikoa erabilita).

Gainera, aldeek konpromisoa hartzen dute neurri tekniko eta antolakuntza arlokoen bidez datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta haien aldaketa, galera, tratamendua edo baimenik gabeko erabilera saihesteko, kontuan izanik teknologia aurrerapenak, biltegiatutako datuen ezaugarriak eta arriskuak (giza jardueratik edo ingurune fisikotik eratorritakoak).



HAMABOSGARRENA.- ESPARRU HITZARMENA INTERPRETATZEKO ERREGIMENA

Esparru-hitzarmen hau administratiboa da eta dagokion administrazio-ordenamendu juridikoak arautuko ditu haren interpretazioa eta garapena.

Esparru-hitzarmenean edo hitzarmena betetzean sor daitezkeen arazoak hamaikagarren klausulan aipatutako Jarraipen Batzordeak ebatziko ditu.

HAMASEIGARRENA.- ESPARRU HITZARMENAREN INDARRALDIA

Esparru-hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik hasita.

Aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, esparru-hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute esparru-hitzarmena beste lau urtez luzatzea edo, hala irudituz gero, azkentzea.

Esparru-hitzarmenaren salaketa idatziz jakinaraziko zaio beste aldeari eta ez du inolako eraginik izango abian dauden jardueretan, nahiz eta aintzat hartu beharko den zazpigarren eta zortzigarren klausuletan aldez aurreko hutsaltzeari buruz ezarritakoa.

Curriculumez kanpoko praktiketan, praktikak erakunde laguntzailean duen iraupenera mugatuko da hezkuntza lankidetzarako akordioaren indarraldia (UPV/EHUren Kanpoko Praktika Akademikoen Araudiaren IV. eranskina).

HAMAZAZPIGARRENA.- SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Honako hauek izango dira esparru-hitzarmena azkentzeko arrazoiak:

- Alde sinatzaileek ados jarrita hala erabakitzea edo alde batek esparru-hitzarmenaren salaketa eskatzea, hamaseigarren klausulan ezarritako moduan.
- Esparru-hitzarmenaren xede diren ikasketa ofizialak desagertzea.

HEMEZORTZIGARRENA.- JARDUERAK AMAITZEA ESPARRU HITZARMENA AZKENDUZ GERO

Esparru-hitzarmena azkenduz gero, aldeek bermeak emango dizkiete ikasleei hasita dituzten jarduerak amaitzeko.

Eta, adostasunaren eta onespeneraren erakusgarri, aldeek esparru-hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, dokumentuaren hasieran adierazitako lekuan eta egunean.



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



UPV/EHUko GRADUAREN ETA HEZKUNTZA
BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKOTREORDEA

EUSKO JAURLARITZAKO OSASUNEKO
SAILBURUORDEA

Laura Vozmediano Sanz
(Sinadura eta zigilua)

José Luis Quintas Diez
(Sinadura eta zigilua)



NAZIOARTEKO
BIKINTASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



GRAL ERANSKINA - GRAL GARAPENA EDO ZUZENDARITZA

LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENA, UPV/EHuren ETA EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN ARTEKOA, IKASTEGIZ KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGITEKO ETA GRADU EDO MASTER AMAIERAKO LANAK EGIN EDO ZUZENTZEKO.

20____ / 20____ IKASTURTEA

jaunak/andreak

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari gisa

jaunak/andreak

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren ordezkari gisa

jaunak/andreak

ikasle gisa

UPV/EHuren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenak ezarritakoa betetzeko, informazio hau ematen dute:

1. UPV/EHUn eginiko ikasketak (gradua)

2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren zein ikastegi, laborategi edo ikerketa-unitatetan egingo den GRALa.

- 3.1 (GRALa erakunde laguntzaileko pertsonalak zuzentzen badu)

GRALaren zuzendaria (erakunde laguntzaileari dagokiona, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekoa)

GRALaren zuzendarikidea (UPV/EHUKoa):

- 3.2 (GRALa UPV/EHUKo irakasle batek zuzentzen badu)

GRALaren zuzendaria (UPV/EHUKoa)



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Erakunde laguntzaileak izendatutako pertsona, ikaslearen jardueraz arduratzeko.

4. Jarduera plana:

Garatu beharreko jarduera edo zereginen deskribapena
1-
2-
(...)

5. Jardueren hasiera (uu/hh/ee): ____ / ____ / ____

6. GRALa egiteko ordutegia

Goizez ☐ eta/edo arratsaldez ☐

7. Sinatzaileen datuak esparru-hitzarmenaren xedeetarako erabiliko dira soil-soilik. Dokumentu hau sinatzean baimena ematen da titularren datu pertsonalak xede horietarako lagatzeko eta tratatzeko.

8. Konfidentzialtasuna: Alde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute konfidentzialtasunez gordetzeko erakunde laguntzailearen barne informazioa, eta sekretu profesionalaz jokatzeko, halako moldez non ez dituzten agerian jarriko, jakinaraziko edo hirugarrenen esku utziko praktiketan (praktiken aurretik, praktikak egin bitartean eta ondoren) lortutako datuak eta informazioa.

9. Ikasleak baieztatzen duenez:

— Ezagutzen ditu GRALa garatu eta zuzentzeko UPV/EHUk eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak sinatu duten lankidetzarako esparru-hitzarmenaren baldintzak, berari dagozkionak.

— Konpromisoa hartzen du esparru-hitzarmenak eta aplikagarria den araudiak ezartzen dituzten betebeharrak betetzeko.

— Baimena ematen die UPV/EHUri eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari bere datuak lagatzeko eta tratatzeko, esparru-hitzarmenaren hamalagarren klausulak ezarritako moduan.

Eta honen hiru ale sinatzen dituzte, _____ (e)n, 20__ (e)ko _____ren ____ (e) (a)n.

UPV/EHU

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

Kargua: _____

Kargua: _____

Sin.: _____
(Sinadura eta zigilua)

Sin.: _____
(Sinadura eta zigilua)



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



IKASLEA

Sin.: _____
(Sinadura)

2021eko abuztuaren 30a, astelehena



NAZIOARTEKO
BIKINTASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



MAL ERANSKINA - MAL GARAPENA ETA/EDO ZUZENDARITZA

LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENA, UPV/EHuren ETA EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN ARTEKOA, IKASTEGIZ KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGITEKO ETA GRADU EDO MASTER AMAIERAKO LANAK GARATU EDO ZUZENTZEKO, BAITA IRAKASLEEK UNIBERTSITATEKO MASTER TITULU OFIZIALETAN LAGUNTZEKO ERE.,

20____ / 20____ IKASTURTEA

jaunak/andreak

Unibertsitateko masterraren unibertsitate-irakaskuntzaren arduraduna, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari gisa

jaunak/andreak

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren ordezkari gisa

jaunak/andreak

ikasle gisa

UPV/EHuren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenak ezarritakoa betetzeko, informazio hau ematen dute:

1. UPV/EHUn eginiko ikasketak (unibertsitate masterra)

2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren zein ikastegi, laborategi edo ikerketa-unitatetan egingo den MALa.

- 3.1. (MALa zuzentzen badu erakunde laguntzaileko pertsonalak: doktorea/Graduondoko Batzordeak master profesionaletarako baimendutako ez doktorea)

MALaren zuzendaria (Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekoa)

- 3.2. (MALa zuzentzen badu erakunde laguntzaileko pertsonal EZ doktoreak)



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



MALaren zuzendaria (UPV/EHUkoa)

MALaren zuzendarikidea (Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekoa)

3.3. (MALa zuzentzen badu UPV/EHUko pertsonal doktoreak / Graduondoko Batzordeak master profesionaletarako baimendutako ez doktore batek)

MALaren zuzendaria (UPV/EHUkoa)

Erakunde laguntzaileak izendatutako pertsona, ikaslearen jardueraz arduratzeko.

3.4. (MALa zuzentzen badu UPV/EHUko irakasle EZ doktore batek)

MALaren zuzendaria (UPV/EHUkoa)

MALaren zuzendarikidea (UPV/EHUkoa)

Erakunde laguntzaileak izendatutako pertsona, ikaslearen jardueraz arduratzeko.

3.5. (MALa zuzentzen badute batera UPV/EHUko irakasle batek eta erakunde laguntzaileko pertsonalak)



NAZIOARTEKO
BIKAINITASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



MALaren zuzendarikidea (Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekoa)

MALaren zuzendarikidea (UPV/EHUkoa)

4. Jarduera plana:

Garatu beharreko jarduera edo zereginen deskribapena
1-
2-
(...)

5. Jardueraren hasiera (uu/hh/ee): _____

6. MALa egiteko ordutegia
Goizez ☐ eta/edo arratsalde ☐

7. Sinatzaileen datuak soil-soilik erabiliko dituzte aldeek esparru-hitzarmenaren xedeetarako. Dokumentu hau sinatzean baimena ematen da titularren datu pertsonalak xede horietarako lagatzeko eta tratatzeko.

8. Konfidentzialtasuna: alde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute konfidentzialtasunez gordetzeko erakunde laguntzailearen barne informazioa, eta sekretu profesionalaz jokatzeko, halako moldez non ez dituzten agerian jarriko, jakinaraziko edo hirugarrenen esku utziko praktiketan (praktiken aurretik, praktikak egin bitartean eta ondoren) lortutako datuak eta informazioa.

9. Ikasleak baieztatzen duenez:

— Ezagutzen ditu MALa garatu eta zuzentzeko UPV/EHUk eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak sinatu duten lankidetzarako esparru-hitzarmenaren baldintzak, berari dagozkionak.

— Konpromisoa hartzen du esparru-hitzarmenak eta aplikagarria den araudiak ezartzen dituzten betebeharrak betetzeko.

— Baimena ematen die UPV/EHUri eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari bere datuak lagatzeko eta tratatzeko esparru-hitzarmenaren hamabosgarren klausulan ezarritako moduan

Eta honen hiru ale sinatzen dituzte, _____ (e)n, 20__ (e)ko _____ ren ____ (e) (a)n.

UPV/EHU
MASTERRAREN ARDURADUNA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Kargua: _____

Kargua: _____

Sin.: _____
(Sinadura eta zigilua)

Sin.: _____
(Sinadura eta zigilua)

IKASLEA
Sin.: _____
(Sinadura)

**UPV/EHuren KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOEN ARAUDIAREN II. ERANSKINA.
CURRICULUM PRAKTIKAK.**

PRESTAKUNTZA PROIEKTUA

..... / IKASTURTEA

..... jaunak/andreak (ikaslearen izen-abizenak)
NAN

Ikasle gisa

jaunak/andreak (tutorearen izen-abizenak)

Tutore gisa

jaunak/andreak (instrukturearen izen-abizenak)
--

Instrukture gisa eta (erakunde laguntzailea)ren izenean.

UPV/EHuren eta erakunde horren arteko Hezkuntza Lankidetzarako
Esparru Hitzarmenari jarraiki, informazio hau ematen dute:

- 1.- UPV/EHUn eginiko ikasketa:
- 2.- Jarduerak non garatuko diren:
- 3.- Erakundeko instrukturea:
- 4.- Tutore akademikoa:
- 5.- Praktiken Programaren arduraduna edo, hala badagokio,
..... tituluaren praktiken arduraduna.

6.- Hezkuntza-helburuak:

Ikasleak eskuratu beharreko oinarritzko gaitasunak, gaitasun generikoak edo zeharkako gaitasunak:
1.-
2.-
(...)
Ikasleak eskuratu beharreko gaitasun espezifikoak:
1.-
2.-
(...)
Ikaskuntza emaitzak:
1.-
2.-
(...)



NAZIOARTEKO
BIKINTASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



7.- Garatu beharreko zereginak eta jarduerak: garatu beharreko zereginen eta jardueren deskribapena:

1.-
2.-
(...)

8.-Praktiken Programaren iraupena:

..... (e)tik(e)ra (uu/hh/ee)

9.- Praktikaren ordutegia:

10.- Ordu kopurua:

11.- Sinatzen duten aldeen datuak esparru-hitzarmenaren helburuetarako erabiliko dira soil-soilik. Dokumentu hau sinatzean baimena ematen da titularren datu pertsonalak xede horietarako erabiltzeko.

12.- Aldeek konpromisoa hartzen dute konfidentziasunez gordetzeko erakunde laguntzailearen barne informazioa eta sekretu profesionalaz jokatzeko, halako molde ez dituzten agerian jarriko, jakinaraziko edo hirugarrenen esku utziko praktiketan (praktiken aurretik, praktikak egin bitartean eta ondoren) lortutako datuak eta informazioa.

13.- Nolanahi ere, aldeen eskubideei eta betebeharrei dagokienez, bete egin beharko da UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzeko Araudiak ezarritakoa.

Sinatzen dute, _____ (e)n, 20__ (e)ko _____ ren ____
(e) (a)n.

UPV/EHUko ikaslea

UPV/EHUko tutorea
(Sinadura eta zigilua)

Erakundeko instruktorea
(Sinadura eta zigilua)

(Sinadura)

Laguntza Poltsa egonez gero

Erakundearen arduraduna



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Praktiken Programaren arduraduna
edo, hala badagokio, tituluaren
praktiken arduraduna

(Sinadura eta zigilua)

(Sinadura eta zigilua)



NAZIOARTEKO
BIKINTASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



**UPV/EHUREN KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOEN ARAUDIAREN IV. ERANSKINA.
CURRICULUMEZ KANPOKO PRAKTIKAK**

UPV/EHUREN IKASTEGIAREN ETA ERAKUNDE
LAGUNTZAILEAREN ARTEAN HEZKUNTZA LANKIDETZARAKO PROGRAMA BAT GARATZEKO
ESPARRU HITZARMENA

..... jaunak/andreak (Zuzendaritza- edo
Dekano-taldeko kidea)

Eta jaunak/andreak,
(erakundea)ko (kargua)

Hezkuntza Lankidetzarako Esparru Hitzarmen hau sinatzen dute,
unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen
uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuak eta Ikasleen Kanpoko Praktika
Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUREN Araudiak ezarritakoaren arabera.

1.- Programan parte hartzen duen ikaslearen datuak:

.....jaunak/andreak
NAN:
Titulazioa:.....

2.- Erakundeko instruktorea: jauna/andrea.

3.- Ikastegiko tutorea: jauna/andrea.

4.- Praktiken Programaren arduraduna: jauna/andrea

5.- Prestakuntza proiektua:

a) Hezkuntza-helburuak:

Ikasleak eskuratu beharreko oinarritzko gaitasunak, gaitasun generikoak edo zeharkako gaitasunak:
1.-
2.-
(...)
Ikasleak eskuratu beharreko gaitasun espezifikoak:
1.-
2.-
(...)
Ikaskuntza-emaitez:
1.-
2.-
(...)

b) Garatu beharreko zereginak eta jarduerak:

Egin beharreko zereginen eta jardueren deskribapena:
1.-
2.-



NAZIOARTEKO
BIKINTASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



(...)

- 6.- Jarduera non garatuko den:
- 7.- Programaren iraupena eta dedikazioa (ordutan).
Orduak, guztira
Hasiera- eta amaiera-datak: -
Ordutegia:
- 8.- Ikasleak aukera izango du praktiketara ez joateko azterketarik egin behar izanez gero, horren berri emanez instruktoreari hiru egun lehenago. Arrazoi akademiko edo beste arrazoi batzuegatiko gainerako huts egiteak ahalik eta lasterren jakinaraziko zaizkie instruktoreari eta tutoreari, eta tutorearen onespina beharko dute.
- 9.- Ikasleak bete egingo ditu segurtasun-neurriak eta jarraibideak baliabide informatikoak erabiltzean, informazioa tratatzean, dokumentuak zaintzean eta instalazioen segurtasunean.
- 10.- Esparru-hitzarmen hau sinatzean, baimena ematen da datu pertsonalak erabiltzeko, soil-soilik esparru-hitzarmenean aipatutako xedeetarako, aintzat harturik datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio libreari buruzkoa, zeinak indargabetu egiten baitu 95/46/CE Zuzentaraua (datuak babesteko erregelamendu orokorra). Ezin ezingo da inola ere daturik erabili esparru-hitzarmenean eta, hala badagokio, haren eranskinetan aipatzen ez diren zereginetarako. Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei lagako edo jakinaraziko, non eta ez den esparru-hitzarmenean adierazitako eta indarrean dagoen legedian aurreikusitako helburuak artatu, garatu, kontrolatu eta betetzeko. Datuen titularrek eskubidea izango dute datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko eta tratamendua mugatu eta aurkaratzeko. Eskubidea izango dute, halaber, soilik beren datuen tratamendu automatizatuan oinarritzen diren erabakien pean ez egoteko. Eskubide horiek gauzatzeko, UPV/EHUra joko dute, datuen babesaren ordezkariarengana (Sarriena auzoa, z/g 48940 Bizkaia edo dpd@ehu.eus helbide elektronikoa erabilita). Gainera, aldeek konpromisoa hartzen dute neurri teknikoaren eta antolakuntza arlokoen bidez datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta haien aldaketa, galera, tratamendua edo baimenik gabeko erabilera saihesteko, kontuan izanik teknologia aurrerapenak, biltegiaritutako datuen ezaugarriak eta arriskuak (giza jardueratik edo ingurune fisikotik eratorritakoak).
- 11.- Alde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute konfidentziasunez gordetzeko erakunde laguntzailearen barne informazioa, eta sekretu profesionalaz jokatzeko, halako molde, non ez dituzten agerian jarriko, jakinaraziko edo hirugarrenen esku utziko praktiketan (praktiken aurretik, praktikak egin bitartean eta ondoren) lortutako datuak eta informazioa.
- 12.- Nolanahi ere, aldeek eskubideei eta betebeharrei dagokienez, bete egin beharko da UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzeko Araudiak ezarritakoa.
- 13.- Gorabeherak izaten badira praktiketan edo esparru-hitzarmena betetzean, Jarraipen Batzorde paritario batek konponduko ditu.
Batzorde paritario horretan, esparru-hitzarmenaren sinatzaileak izango dira buru, txandaka.
- 14.- UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak erregulatzen dituen Araudiaren 10. artikulua ikasleei ezarritako betebeharrak ez betetzearen, praktikak alde aurretik hutsalduz gero, horren berri emango diote UPV/EHUk eta erakunde laguntzaileak Jarraipen Batzordeari, zeinak gehienez 10 egun izango baititu erabakiaren egokitazunaz ebazteko.
- 15.- Hezkuntza Lankidetzarako Esparru Hitzarmen honen indarraldiak bat



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



egingo du praktikaldiarekin, eta bete egin beharko dira UPV/EHUren Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak erregulatzeko Arautegiaren 5.3 artikulua ezarritako gutxieneko betekizunak.

_____ (e)n, _____, _____ko _____ren.....(a) .

Ikastegia

Erakunde laguntzailea
(Sinadura eta zigilua)

Ikaslea

(Sinadura eta zigilua)